

MOZIOA

Zioa: Israeldar estatuarekin harreman komertzial eta ekonomiko oro etetea

Palestinar herria Israeldar estatuaren partetik sufritzen ari den genozidioak ez du inolako justifikazio posiblerik. Herri hau ez dago prest egoera hau normalizatzeko eta Israel isolatu eta Palestina babesten jarraituko du. Testuinguru honetan gure udalak edozein motako harremana Israelekin izatea onartezina da.

Israel eta Hamasen arteko akordioa onartu bada ere, ez dago hau betetzeko inolako bermerik. Gainera, argi izan behar dugu akordioa onartu izanak ez dakarrela genozidioaren amaiera. Goseteak, desplazamenduek, lurraldearen okupazioak, gaixotasunek, oinarritzko lehengaien eskasiak... indarrean jarraitzen dute. Hori dela eta, Palestinak, inoiz baino gehiago, mundu osoaren babesa jaso behar du. Batetik, akordioa bete dadin, eta bigarrenik, genozidioa amaitu dadin. Honegatik guztiagatik, Israelekin ditugun harreman ekonomiko eta komertzialak etetea Palestina babestu eta Israel isolatzeko bide eraginkorra direla demostratu da. Hori dela eta, guk norabide horretan ekarpena egin asmo dugu.

Bergarako udalak ondorengoa erabakitzen du:

1. Erabakitzen da, kontratuak esleitzeko edozein prozeduratan, organo arduradunek nahitaez eskatuko dutela lizitatzailerik erantzukizunpeko adierazpenaren eredu sinatzea, nazioarteko zuzenbidea betetzeari dagokionez. Zehazki, adierazpen horretan, lizitatzailerik honako hau adierazi behar dute:

Ez dute Nazio Batuen Erakundearen 183. batzar orokorrak onartu eta aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoa urratzen duen eragiketarik egiten, ez eta horiek arautzen dituzten printzipio orokorrak ere: Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Sistema Unibertsala, Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Eskualde Sistemak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa.

Jarraibide hori nahitaez aplikatuko da Udalean eta bere sektore publikokoak diren nortasun juridiko propioa duten erakunde guztietan. Halaber, Bergarako Udalaren baliabide publikoekin finantzatu diren kontratuak esleitzen dituzten erakunde guztiei aplikatzen zaie, haien finantzaketa-ehunekoa edozein dela ere.

2. *Udalerriko kontratazio guztiak berrikusiko dira, Israelgo estatuarekin egon daitekeen edozein kontratu-harreman aurkitu ezker aztertuko da bera etetea eta bermatu luzatzen ez dela.*
3. *Bergarako Udalak ez du parte hartuko Israelgo Gobernuak eta genozidioa edo hori ahalbidetzen duten politikak babesten edo legitimatzen dituen edozein erakunde publiko edo pribatuk parte hartzen duten ekitaldietan (kirola, ekonomia, akademikoa, kulturala edo beste mota batekoa).*
4. *Bergarako Udalak ez du diruz edo logistikoki lagunduko Israeleko partaideak dituen ekitaldirik (kirola, ekonomia, akademikoa, kulturala eta beste mota batekoa) partaide horiek ez badute publikoki Israelgo gobernua gaitzesten.*